

ITXURALDAKETA

Bi galtza-pare txikituta bata bestearen ganean dituzula zabilta. Eta hiru bat elastiko zoldatsu ere bai, mahukak esku muturretik zintzilik dauzkazula. Alkandora higatu bat gainetik, zaharra baino zaharrragoa.

Kolorerik gabeko zamarra higatu zikin handi bat, belaunetatik behera dilindan. Noizbait gabardina izandako beste zarpa zahar ikaragarria, beste guztien tapaki, bazter guztietatik zintzilikarioz josia, lurrean erdi arrastaka duzula.

Oinetan bota handi zulatuak aho zabalik, gal-tzerdi ilun nazkagarriak zelataka dituzula. Buruan kapela beltz erraldoia belarrietaraino sartua, euritarako aterki eta aurpegiaren estalki. Ilez eta bizarrez betetako bufanda iluna aurpegi-lepotan, zure burua tapatzeko, inork ezagutuko ez zaituelakoan.

Esku batean poltsatzar zikin bat eta bestean begiratu tristeko txakur gorrixka eta herrena. Gitarra zahar bat ere bai bizkarretik zintzilik...

Horixe da zure zomorroa, Paul, horixe zure gordelekua, horixe sortu duzun babestoki ilun eta tristea. Inork ez ezagutzeko moduko itxura hartu duzu, eta denok ezagutzen zaitugu, denak ezagutzen gaituzu. Eta ez zait ongi iruditzen, Paul. Handia da, dirudieenez, jasaten ari zarena, handia aurrera egiteko behar duzun indarra ere, baina modu horretaraino galtzea ere! Eta badakit ahal duzun guztia egiten ari zarela. Nahi duzun guztia, baina ez nago ados, ez dut ulertzen hartu duzun bidea. Haserre nago zurekin. Zu ezagutzen zintugunok ez zaitugu ezagutzen.

Badakit seniderik ez duzula, baina non daude zure lagunak? Haientzat zerbait, norbait zinenean, beti zenituen inguruan zure argi printzen argitan zer aurkituko zer jasoko. Eta batez ere, non dago Anje bera? Halere jakin ezazu, lagun batzuk bederen badituzula oraindik, nahiz eta zuk ez duzun inorekin deus ere jakin nahi. Agian, nahi, nahiko duzu, baina nahia baino indartsuagoak dira zure ezina eta mina.

Egia da nire lagun batzuk izutu ere egiten direla zurekin, bueno, zure oraingo itxurarekin, esango nuke, baina ni ez naiz izutzen, ez zurekin eta ez zure itxurarekin. Badakidalako nor zaren eta nolakoa

zaren. Eta Kintxo gure lagunak ere asko maite zaitu, nahiz eta orain hura ere oso haserre dagoen, ezkor, etsita. Eta Perlak. Eta Telmok, Aniak, Ibaik...Oso triste jartzen gara kale kantoiren batean lurrean eserita ikusten zaitugunean. Triste eta haserre.

Batzuek jada ez dute zurekin deus ere jakin nahi. Ezin dutelako deus ere egin laguntzeko, ez duzulako deus ere egiten lagun zaitzagun.

Oraindik ongi kantatzen duzu zure ahots lakarrarekin, eta gitarra jotzen ere ez zaizu ahaztu. Nola ahaztuko zitzaizun, ba? Hori ez da ahazten, Paul. Niri ere zuk irakatsi zenidan gitarra jotzen eta! Bueno, niri eta beste askori. Gure musikako irakaslea zinen ikastolan orain gutxi arte eta, joe!